



Nerea Balda

Irurtzundar hau Euskal Filologian lizentziatua da eta euskara eta literatura irakaslea Altsasuko institutuan. Idaztea hizkuntzarekiko jakin-minak urratutako beste bide bat da berarentzat.

Ilustrazioa:
Cristina Fernandez Blanco

Eserlekua

Nerea Balda

Johnnie-k lasterka egin zuen bere etxetik Dexter Avenue-rai-
noko kilometro eskasa. Ilobari entzundakoa lehenbailehen
Martin artzainari kontatu beharrean zen, berak jakingo zuen
zer egin. Abenduko haize hotzak birrikak zulatzen zizkion,
eta arnasestuka igo zituen eskailerak. Elizako atea kolpe batez
ireki eta otoitzean ari zen gizona berehala zutitu zen iritsi be-
rriaren aztoramena ikusita.

–Jauna! Rosa! Rosa atxilotu dute!

Martinek emakumea eserarazi, eta eztula baretu zitzaion arte
itxoin zuen.

–Ilobak kontatu dit omnibusean gertatutakoa. Zuri madari-
katu horrek gidatzen duen omnibus hori beteta zihoan, eta zu-
titzeko eskatu die. Iloba eta beste bat zutitu egin direla, baina
Rosa ez dela mugitu. Hantxe gelditu dela Blake horren aginduei
jaramonik egin gabe. Poliziari deitu omen dio gero eta eraman
egin dutela. Iloba beldurtuta zegoen. Zer egingo dugu, Martin?

Gizona pentsakor gelditu zen une batez. Claudette etorri zi-
tzaion gogora, hilabete batzuk lehenago zuri bati lekua ez uz-
teagatik espetxeratutako neskatala.

–Entzudazu. Ralph eta Dexter aurkitu behar dituzu, eta niri
esan didazuna kontatu. Esaiezu gureak biltzeko, bihar goizeko
getan hemen elkartuko gara. Gure garaia iritsi da, esaiezu hori
nire partez. Ulertu duzu, Johnnie?

–Gure garaia. Bihar goizeko getan.

–Garrantzitsua da oso.

–Eta Rosa, jauna?

–Lasai. Ni arduratuko naiz.

Emakumea presaka irten zen. Martinek aldaretik gurutze
txiki bat hartu zuen emakumearen bide bera hartu aurretik.

Polizia-etxean sartu aitzin, berokiko sakelatik gurutzea atera
zuen. Harrera egin zion poliziari begirada zertxobait leundu
zitzaion hura ikustean.

–Martin Luther King artzaina. Rosa Parks nire eliztarrari ai-
tortza hartzera nator.

Poliziak mesfidati begiratu zion.

–Jaunari egindako bekatuagatik barkamena eskatu beharko
dio.

–Itxoin hor.

Polizia pasabide batean desagertu zen, eta itzuli zenean, bere
zereginetan murgildu zen zain zeukan gizonari aurpegira be-
giratu ere egin gabe. Artzain gazteak harrera-gelako bazter har-
tan zutik eman zituen itxaronaldiak iraun zituen bi orduak,
eta, halako batean, itxaropena agortzen hasita zuela, pasabidetik
beste polizia bat agertu eta korridorearen bukaerako gela bate-
raino jarraitzeko esan zion. Hormek margo zati eroriak ageri
zituzten, hezetasunak eragindako orbanak sabaiak; eta bertan
itxi usain sarkorra, eta bi aulki altzari bakar.

Berehala eraman zioten Rosa. Jostunak lasai zirudien. Polizia
zutik gelditu zen haien ondoan, zurrin, Martinek aitortzak pri-
batua izan behar zuela esan zion arte.

–5 minutu. Besterik ez.

Elkarren parean eseri zirenean, Rosak irribarre egin zion gaz-
teari. Esku-ahur kolorgeek jostorrazaren marka gorriak ageri
zituzten.

–Behin eta berriz bultzatzen gaituzte. Ezin dut ametitu. Deso-
bedientzia bide ona izan liteke.

Baiezkoa egin zion Martinek buruaz, eta labur kontatu zion
deliberatutakoa.

Rosak ondotxo ezagutzen zuen James F. Blake gidaria, urte
bat ere ez zen txartela ordainduta kalean utzi zuenetik. Aurreko
atetik sartu, ordaindu, eta atzeko atetik sar zedila agindu zion
gizonak egun hartan. Ezpainak amorruez hozkatuta jaitsi zen
jostuna autobusetik, eta atzeko aldetik sartzera zihoan une be-
rean, atea muturrean itxi eta autobusa abian jarri zuen. Hantxe
gelditu zen Rosa, madarikazioak madarikazioen atzetik, ahotsa
urratu arte. Abenduaren lehenengo hartan, High Land etorbi-
deko geltoki batean, gidariak gizon beltz bat kalean utzi zuela
ohartu zen Rosa. Gutxirako balio izan zuten autobus barruko
beltzek itxoiteko botatako oihuek. Rosaren amorrua ernai ze-
goen, hortaz, hiru txuri horiek sartu eta Blakek haiei lekua uz-
teko agindu zienean. Emakumeak gidaria ezagutu zuen, eta
amorruek gainezka egin zion.

–Ni ez naiz zutituko. Hau gure eserlekua da.

Beste bi gazte beltzek harriduraz begiratu zioten. Johnnieren
iloba gaztea atezuan sumatu zuen jostunak, baina berak ezin
zuen amorrazioa ez zen beste ezer nabaritu bere baitan.

–Poliziari deituko diot –mehatxu egin zion gidariak.

–Zergatik bultzatzen gaituzue beti? –izan zen Rosaren eran-
tzun bakarra.

Poliziak eskuburdinak jarrita zeramalarik, neska gazteari
keinua egin zion begiradaz, eta hura autobusetik salto eginda
arinetan atera zen izebaren etxe aldera.

Martin etxera iritsi zenerako, izotza bazterrak hartzen hasia
zen. Urrundik, norbait sumatu zuen bere atarian kuxkurtuta.

–Jo Ann! Jainkoarren! Hotzak akabatuko zaitu!

Emakumeak paper bat erakutsi zion.

–Zer iruditzen?

Martinek idazkia irakurtzeko tartea hartu zuen.

–Primeran, Jo Ann, lan ona, bihar gainerakoei erakutsiko
diegu. Eta orain goazen ohera. Egun gogorrak ditugu zain.

Dexter Avenueko bilkuraren ondoren, National City Lines
konpainiako autobusik ez hartzeko deia egiten zuen panfletoa
jaso zuen Claudette Calvinek postontzitik. Sabela laztandu zuen
libre zeukan eskuaz. Montgomeryko omnibusak hutsik geldi-
tuko ziren urtebetez. Claudetten alabak ez zien bere eserlekua
zuriei utzi behar izango.